


MANUEL LEKUONA Saria
Premio MANUEL LEKUONA



**EUSKO
IKASKUNTZA**



**Elías
Amézaga
Urlézaga**



23


Datu biografikoak	5
Données biographiques	27
Une gogoangarriak	49
Moments mémorables	49
Bibliographie	67

Sustraiak (1923-1935)

Europak bere batasunaren moldeak eta mugak ezin finkatuz ari den XXI. mende hatsarre honetan, so bat egiten badiegu iragan 4/5 mendeetan beren arteko liskar eta aharrekin gure historia saltsatu eta galkatu duten alde bietako frantses eta gaztelar estatu nagusiei, ohartzten gara euskaldunen arteko muga “naturalak”, omen (?) zaindu edo gainditu behar zituzten gizaseme askoren izenak agertzen zaizkigula gure literaturaren historian, hala nola, mugazain edo mugazain seme genituen, besteak beste, Duvoisin anaiak, Elizanburu anaiak, Otxalde eta Mendiague, Oxobi eta Zerbitzari, bai eta Piarres Lafitte, gure maisua. Mundu berean dauzka bada bere sustraiak, gaur hemen Manuel Lekuona sariarekin Eusko Ikaskuntzak ohoratu nahi duen Jean Haritschelhar irakasle eta euskaltzainburuak.

Izen horrek alabaina ziberotar kutsu handia baldin badu ere, bere “haritx”, “elhar” eta hiru “h”-ekin, aitortu behar dugu, izatez Ezterenzubiko elizan, 1885ean ezkondu-eta, Baigorriko Urdozen eraman zutela beren bizia bakoitzak bere sailean eta erretreta hartu arte; Janbatista Haritschelhar mugazainak (1860-1947) eta Gaxuxa Chimits errientsak (1864-1940), III. Errepublikaren zerbitzuko.

Arño Haritschelhar haien semeak, amarekin egin zituen lehen ikasketak Urdozeko eskolan eta gero gorago igan zen Baionan Lassaletar anaiek zeukaten san Bernaten Ikastegian. Hortik lekora, sastregolari oharturik, Bordelen bururatu zituen aprendizkoak eta Tunezian bi urtez soldaduzka eginik 1906an eta 1907an, bere gain hartu zuen jostun ofizioa Baigorriin, nahiz 1914-1918ko gerlak berriz deitu zuen lau urte luzez etxetik urrun eta, biziaren arriskuan, bizitzera.



Beharrik azkenean osorik itzuli zen gerlatik etxera Arño Haritschelhar eta Iholdiko alde horietan ezaguturik Jean Duhalde (+1929) eta Gaxuxa Bidart (+1931) Moxoeneko nagusi etxekanderen alaba, Janamari Duhalde (1891-1972), honekin ezkondu zen 1919ko maiatzaren 15ean.

Ezkont-berriak laster karrikako “Ponthieu”-enean, edo euskaraz ahoskatzeko gisan “Ponttoenean” finkatu ziren eta hor hazi zituzten beren bi seme-alabak: lehenik, 1920eko maiatzaren 15ean sortu zitzaien Denise Haritschelhar, geroago Baionan ezkondu zena Louis Bimboire begi artatzaile zenarekin (+1993/05/08); bigarrenik, 1923ko maiatzaren 13an Jean Haritschelhar, gaur hemen aipu duguna.

Jean Haritschelhar-Duhaldek lehen ikasketak Baigorriko eskola publikoan egin zituen, hor berean “zertifikata” deitu lehen agiria ardietsi 1935ean eta, urte berean, amatxiren bidetik, irakasle izaiteko prestaketak eginen zituela erabaki.


Eskolak (1935-1962)

Akize, Baiona, Mont-de-Marsan eta Tolosako ikastegietan egin zituen beraz bigarren mailako ikasketak eta ondoko prestaketak, baigorriar gazteak, 1935etik 1945erako urte ilunetan eta, batxilergoa ardietsirik 1943an, gaztelaniazko lizentzia abiatu.

1945ean soldadogotik lekora, Saint-Cloud-eko Goi Eskolan sarturik, Sorbonan iraganen ditu gaztelaniazko sailean letretako maila guztiak, hots, lizentzia 1947an, gero Madrilen eta Sevillan ikerketa zenbait eginik, 1949an, *Los hermanos Becker, Gustavo Adolfo y Valeriano, costumbristas* tesinarekin “Diplôme d’Etudes Supérieures” (D.E.S.), 1950ean “Certificat d’Aptitude d’Enseignement Secondaire” (C.A.P.E.S.), eta 1952an berriz “Agrégation” deitu diploma. Azken agiri honek baitio emanen Agen-eko lizeoan duen alxia utzirik, Bordeleko unibertsitatean Noel Salomon Irakaslearen laguntzaile sartzea 1962an.

Anartean Colette Neveu anderearekin ezagutzak eginik, honekin ezkondua zen Jean Haritschelhar, 1949ko abenduaren 19an eta senar emazteak bizi izan ziren behin Boulogne-sur-Seineko hirian, han sortu baitzitzaien, 1952ko urtarrilaren 25ean, seme gehiena, Eñaut deitu zutena eta gaur egun Baigorri Ponttoenean, mahastizaingoari eta hazkuntzari loturik, Annie Iputcha Arrosakoarekin Joanes eta Elorri seme alabak dituen.

Lehenago ordea, Haritschelhar-tarrek, 1952an, Gaskoiniako Agen hirian finkatua zuten, hamar urterentzat bederen, beren familia, ezen hor sortu zitzaizkien oraino Xabier, bigarren semea, 1954eko apirilaren 11an jaioa, gaur errient dena eta Felixiana Phagaburu Pagolar errientsarekin ezkondurik Hazparne Berrondotxipiko eiheran, Jon eta Patxi bi seme dituen, bai eta



Mirentxu alaba bakoitza ere, 1956eko maiatzaren 12an jaioa, Gérard Veillet Corrèzeko Ayen-en ezkondurik, Nicolas eta Sébastien, bi seme izan dituena.


Bere Agen-eko irakasle lanez bestalde, ikerlanetan ere laster hasi zen Jean Haritschelhar, C.N.R.S.-eko Zientzien Ikersail Nagusian partehartuz eta horrela 1962an sartu zen Bordelen Unibertsitateko irakaslegoan, gaztelaniazko Laguntzaile gisa behin eta Maisu-lagun bezala gero, 1965ean.

Tarte horretan bada, gaztelaniazko irakasleak aurkitu zuen Baionako HERRIA astekariaren bulegoan Piarres Lafitte euskalzale jakintsua eta honi aitortu zion bere ama hizkuntza, euskara, sorterritik aski urrun bizi izanik ere gogo onez landuko zuela, norbaitek laguntza apur bat eskaintzen zion ber. Eta horra nola Piarres Lafittek eman zion liburu besotararen haztatzen eta aztertzen hasi zen Jean Haritschelhar, etxera orduko.

Lehen hiru liburu horiek zein izan ziren aitortzen du Lafitteen ikasle ohiak arazorik gabe: lehenik J.B. Harymbat eta B. Pons, Belokeko bi lagunek 1950ean asmatu zuten Ezkila-ren euskara ikasteko metodo berria, gero P. Lafittek berak 1944ean argitaratu euskal gramatika eta hirugarrenik P. Lhande eta J. Larrasquet bi ziberotar jakintsuek 1946an eskaini Pierra Topet Etchahun poeta madarikatu aipatuaren kantu bilduma.

Ageneko eta Uztaritzeko bi irakasleen artean Baionako “Herria”-ren bulegoan gertatu lehen bilkura horrek izan zuen ordea beste ondorioz, ezen Baionako Euskal Erakustokiko zuzendaria, Jean Ithurriague (1896-1960) zendurik, lantegi horren buruzagitza euskaldun baten eskutan geldi zedin onartaraziria baitzioten Lafitte, Dassance, Labéguerie eta beste euskaltzale zenbaitek Baionako Henri Grenet auzapezari, hona non 1962ko urte berean eskaintzen dioten baigorriar Irakasleari bigarren kargu hori.

Parada ederra izanen du orduan Baionako Erakustokiko Zuzendari berriak Euskal Herrira itzultzeko bere familiarekin, Angelu erdiko Elorrieta-n bere egoitza finkatzeko eta gainera Oxobi zenaren ordezkari euskaltzain oso hautatua izaitzeko. Erran



behar da ezen, Jean Haritschelhar Unibertsitateko irakasle gazteak ezagutzak eginak zituela Bordelen Unibertsitateko lehen euskal irakasle eta Bilbon Piarres Lafitten euskaltzainkide zen René Lafon jaunarekin.

Aitor dezakegu beraz 1962az geroz eta 1986eko erretreta hartu arte ez zuela lan eskasik izan Jean Haritschelharrek Angelutik bere Bordeleko, Baionako, Bilboko edo Baigorriko hiru lau ildo nagusien aitzina eramaiteko.

Bordeleko unibertsitateko irakaslea (1962-1986)

Unibertsitateko irakasleen berezitasuna omen da beren irakaskuntzarekin batean ikerkuntza eta azterketa sailak eramaitea: horra zergatik bi azterlan luze eta sakon aurkeztu zituen Jean Haritschelharrek 1969ko uztailearen 8an, *Pierra Topet Etchahun* Barkoxtar aipatuaren *biziaz* eta *obraz*, doktoregoko bi tesien aurkezteko eta bi liburu gotor argitaratzeko gisan.

Hortik landa, Euskal Hizkuntza eta Literatura Irakasle tituluarekin René Lafon ordezkatzeko gai zen Jean Haritschelhar Bordeleko III. Unibertsitatean eta alki horren jabe agertu zen “bikain” edo gaurko ikasleek erran lezaketen bezala “super”, berak kargua utzi arte legearen arabera, 1986an.

“Euskal Hizkuntza eta Literaturako Irakasle” titulu hartuz geroz zein izan ziren bada alki horri 1969etik aitzina bere jabe berriak eman zizkion berezitasunak?

Lehen lehenik, urte haietan beste hizkuntzentzat irakasleak egiten hasi ziren bezala, hots, aleman mintzairaren irakasten alemanez, ingelesa ingelesez, italiera italieraz eta gaztelania gaztelaniaz, hala hala, Bordeleko Unibertsitateko euskararen irakasleak ere bere irakaspen guztia euskaraz eman zuen Eta moda berri horrek ez omen zuen ikasleen kopurua batere menderatu, emendatu baizik, aski urrun hedatu baitzen arauz irakaslearen omena.

Gero Haritschelhar-i gogoratu zitzaion euskal gaietan bakoitza bere alde lan egiten zuten hizkuntzalari, legelari, historialari eta beste unibertsitari kide askoren gonbitatzea Bordeleko ihardunaldi batzuetara, guztiek elkarrekin aztertzeko zer ote zen *Euskal Herria 1789-1850eko* iraganaldian.

Bilkura horiek egin ziren 1973ko maiatzaren 3tik 5era eta, ez dugu erraite beharrik uzta aberatsa eman zutela, Etienne Dravasa, Gregorio Monreal, Jesus Arpal, Jose Mari Satrustegi, P.F. Albaladejo, Pierre Hourmat, J.C. Drouin, Alfonso Irigoyen, Luis Michelena, Pierre Lafitte, Eugène Goyhenetche, Vincent Garmendia, René Lafon eta Jean Haritschelhar bera bezalako ikerleen lanek: Ikus *Société des Amis du Musée Basque* argitaletxeak artikulu guztiak bildurik, 1978an, Baionan argitaratu zuen liburua.

Ikersail berari jarraikiz, Frantziako Hizkuntz Atlasaren G.R.E.C.O. 130092 sartua baitzen jadanik Haritschelhar 1976an, C.N.R.S.-eko *Unité de Recherche Associée* edo U.R.A. 04 1055 delakoaren sortzaile izan zen hura bera 1983an eta geroztik badakigu zer garrantzia hartu duen alor horrek, Baionan berean bere ohatzea egin duenaz geroz C.N.R.S.-eko adar berezi bezala delako *Iker* taldeak, Beñat Oihartzabal doktorea duelarik arduradun nagusi eta zabaltzen duela zortzigarren aldikotz *Lapurdum* aldizkaria, Orpustan jaunak sortua sailaren buru zelarik.

Badakigu bestalde, 70eko hamarraldiaren hasieran, gora zola euskal irakaskuntza eta jakintza gosea Euskal Herrietako alde gehienetan bai eta Iparraldean ere, ezen 1959an, *Euskalzaleen Biltzarra*-ren itzalean sortua zen *Ikas* erakunde berriak eta hamar urte geroago agertua zen *Seaska*-ren lehen ikastolek hasiak zituzten lehen fruituak emaiten eta *Association pour la Création d'un Institut d'Etudes Basques* edo A.C.I.E.B. deitu elkarteak ere sortu zen, Julen de Ajuriaguerra Milafrangara erretiratua zen pediatria ospetsuaren, J. Pinatel legelariaren eta Claudio Harluxet inginadorearen inguruan *Euskal Institutu Nagusi* baten eraikitzeko xedetan Baionan.

Bilkura zenbait egin ondoan, gure asmoa aurkeztu genion Pabeko Unibertsitateari eta honek berehala ihardetsi prest

zeudela delako Institutua sortzeko baina Paben. Orduan Iparraldeko eta Hegoaldeko irakasle talde bat lanean hasi zen, hauek baitziren Piarres Lafitte, G. Laplace, Patxi Goenaga, Txillardegí, J.A. Mugika, J.M. Aranalde, Mixel Bidegain, Piarres Charríton eta hauen doia behari eta entzule, hots, lehen urtean berean 80 bat ikasle hurbildu ziren.

Ikastaldi hauek iraun zuten bizpalau urtez baina ez zezakeen nihondik ardiets onespenik andere Saulnier-Seité Pariseko Hezkuntza sailburuarengatik. eta ministroak berak bideratzen baikenituen Errepublikaren edozein unibertsitateri buruz, azkenean lotsaturik bezala, Jean Haritschelharren bitartez Bordeleko III. Unibertsitateko jaun lehendakariari dei egirik, 1981eko ikasturte hasieran Pérez jaun buruzagiak berak, Henri Grenet Baionako jaun auzapezak, Julen Ajuriagerra Frantziako Kolegioko Irakasle ohiak, eta Lavroff jaunak Bordele II. Unibertsitateko lehendakariak inguraturik, estreinatu zituen Baionako fakultatean Euskal Ikastaldi Legezkoak, geroztik alhan direnak, lizentziatik doktorgorako maila guztiekin.

Orduz geroz ez da erraz jakitea zuzen zenbat doktoregoko tesia bideratu, zuzendu edo epaitu izan dituen Jean Haritschelhar Bordeleko euskal irakasle tituludunak: Orain berean gogoratzen zaizkit Pierra Broussaini buruz nihonek egin nuenaz bestalde, Txomin Peillenek, J.B. Orpustanek, B. Oihartzabalek, Aurelia Arkotxak, eta beste Euskal Herri osoko 20/30 lagunek egin azterlanak.

Anartean *Frantziako Unibertsitateen Goiko Kontseiluan* 1984ean, *Eskualdeetako Kultura eta Hizkuntzen 73. Sail berria* sorturik, burulehen hautatu zuten Bordeleko Irakaslea, 1988eko azken urtean berriz, *Euskal Herriko Unibertsitateak* hura bera. izendatu zuen *Doctor Honoris Causa*.

Baionako euskal erakustokiko zuzendaria (1962-1986)

Jean Ithurriague, Irulegiko semearen ondotik hartu zuen bada ere 1962an, Jean Haritschelharrek Baionako Erakustokiaren Zuzendari kargua eta, zenbait hilabeteren buruko, berpiztu zuen gerla aitzinean Boissel komandanteak Erakustokiaren sortzaileak, argitaratzen zuen aldizkaria, *Bulletin du Musée Basque* deitua, baina 1943an isildua.

Berpiztuz geroztik, zenbat ale berezi ez ditu delako aldizkariak eskaini, besteak beste, *René Lafon* (Mérignac 1899 – Arcachon 1974), *Pierre Lafitte* (Luhuso 1901 - Baiona 1985) *Eugène Goyheneche* (Uztaritze 1915 - 1989) edo *Baionako Euskal Erakustokia* bera ospatzeko xedetan.

Nola ez aipa ere aldizkari berean agertu ziren hainbeste albiste, ikerlan edo hitzaldi aberats, oraintxe gogoratzen zaizkigunak, hala nola Zuzendariak berak Erakustokiko artxiboetan sarrarazi zituen Faure jaunaren paperak, Etxahunen eskuizkribuak, Manu Sota jaunak erosi liburuak, bai eta gure mendietako gotorlekuez eta harri baratzez Gaudeul jeneralak eta Jacques Blot medikuak, egin ikerketak, Nafarroa Behereko historiaz J.B. Orpustanek Irakasleak idatzi artikulua, Ikastolen garapenez Mikel Lasak eman mintzaldia, P. Lafittek argitaratu Martin Landerretchen korrespondentzia, edo Jon Casenavekin nihonek prestatu Broussainen eta Lacomben arteko elkarridazketa.

Bizkitartean beste sail berri bat ere ideki zen 70eko hamarraldian Baionako Euskal Erakustokian. Etxe hortako


Zuzendariari esker, berehala arrakasta ederra bildu zuena eta geroago ondorio ohargarriak izan zituen: mintzo gara bi urtez jarraian 1971an eta 1972an antolatu ziren Baionako *Euskal Kultura Aste* aipatuz.

Ezen orduan, Parisen 68an iragan Iraultza harroaren ondotik eta Madrilen Francoren diktadurak bere azken uztar odoltsuak ematen zituen une berean, agertu zitzaigun Baionako Euskal Erakustokian, belaunaldi berri bat, igitai eta mailuarekin aitzineko gudarien sailari jarraiki nahi izan zitzaiona, baina zorigaitzez, mende erdiaren buruan oraino, Herriarentzat bakebiderik ezin aurkituz dabilena.

Elkar ezagutzen ez zuten gazte askok orduan izan zuten Baionan lehen aldikotz elkarretartzeko eta elkartrukatzeko parada: hala nola Arantzazutik Alemaniara ihesi joan zen Jose Azurmendi fraile gazteak aurrez aurre egin zuen gure aitzinean Gazteizetik Belgikako Leuwwenera itzuri Emilio Lopez mediku gaztearekin eta Marx-en Kapituala hartu zuten solasgai, Pierre Narbaitz eta Etienne Salaberri gure irakasle ohiak miretsirik zeudela haieri so.

Erakustokiko areto nagusi berean, Bizkaiatik etorri Gabriel Aresti profeta berriak zuen ere ospatu, Natxo de Felipe xantre berriak lagundurik, bere *Meza Nagusia*, gero Pariseko bizpahiru euskal ikasle ausarten erasoan aurka J. Haritschelharrek berak etxeko nagusi gisa, zaindu behar izan zuena. Ikus: Susa argitaletxeak 1986an eman *Gabriel Aresti-ren Literatura lanak* - 10, 13. - Baiona 72; 108-122. orr.

Gehiago oraino behar dugu erran, zergatik ez, 1971eko eta 1972ko Kultura Aste horiei hurbiletik jarraiki zitzairen Karlos Santamaria zenaren inguruan hozitu zela, ondoko urtean Donibane Lohizuneko *Maurice Ravel lizeoan* Mañex Goihenetxe zenaren idazkaritzarekin Jean Haritschelharrek eta beste bizpalau euskaltzalek izan genuen *Lehen Udako Euskal Unibertsitatea*-ren bultzatzeko ideia, geroago Baionako Euskal Erakustokitik, Jean Haritschelhar Zuzendari izan zeno bederen, beste euskal elkarte zahar edo berri asko bezala, handik laidakatuko dena.



Hain zuzen 1981eko irailean, Euskal Erakustokian, *Ikas* eta *Euskaltzaindiak* deiturik, Haritschelhar zela orduan Ikas bata-suneko burua eta euskaltzainburu-ordea, bildu ziren Iparraldeko kultura batasun gehienak, orotara ehun bat baino gehiago jende, ikusteko nola bultza zitezken gobernu berriaren aitzinean, ezkerrek hitzeman zituenak Frantziako presidentaren hauteskundeetan. Izendatu ziren batzordeak beren lana eginik Manex Goyhenetche-n laguntzarekin, azken bilkura orokor baten ondotik agertu zen dokumentua emankorra izana da. Geroztik sortu zen B eredia eskola publikoetan, 1982an, geroztik ere “Centre Culturel du Pays Basque” zeritzana, 1983an. Baina Lege Biltzara eta Akitania eskuinera pasatu zirelarik, emeki emeki haustura egin zen hautetsien eta Pizkundera elkarteen konfederaziokoen artean eta osoki bukatu bilkura orokor batean.

Sozialistek 1988an berriz bereganatu zutelarik gobernu, hasi ziren harremanak kultura ministroaren gabinetearen eta Pizkunderaren artean, Haritschelhar, Bachoc, Abeberry eta Txomin Héguy joanik Parisera elkarriketarako. Geroztik sortu zen Euskal Kultur Erakundera, arauak behar den bezala finkaturik, partekotasuna ezarri hautetsien eta elkarteen artean. Erakunde hori bizi da Uztaritzen eta lan ederra egin eta egiten ari da Iparraldean Txomin Héguy eta gero Pantxo Etchegoin-en ardurapean, Erramun Bachoc eta gero Mikel Erramouspe dela zuzendaritzako burua.

Baigorriko herri gizona (1971-1980)


Haurrean goizik etxetik eta herritik urrundu izanagatik ez zuen nehoiz Jean Haritschelharrek ahanzi bere sorterrria eta lanaren gustuz beretzat eta familiarentzat ardietsiz geroz Euskal Herrira itzultzeko eskubidea, gogoratu zitzaion Baigorriko herritarren aitzinean lagun multzo batekin bere burua eskaintzea Baigorriko auzapez bezala nehondik ahalaz presatuak iduritzen zitzaizkion herrilan batzuen bideratzeko gisan.

Horra beraz nola aurkeztu zen lehen aldikotz botzetara bere lagunekin 1971ko hauteskundeetan eta berehala auzapez hautetsia izan.

Egundainotik pilota maite izan baitzuen Haritschelharrek eta 1943an *Zaharrer Segi* taldeak luzeko xapelgoa irabazi zuela Errekalde, Olçomendy anaiak, Petrikorena eta Haritschelharrekin baitakigu, 1968az geroz ordea Pilotako Federazioan ere sartua bait zen, 1970ean berriz *Pilota* aldizkaria sortua bait zuen. 1981ean, *Pilotarien Biltzarra*-ren buruzagi hautatu zuten.

Ez zen beraz nehor harritu Baigorriin kontseilu berriak V.V.F. Bakantziatarren kanpalekuaren Errugbilarien zelaiaren eta Gazteen igerilekuaren aldean eraiki baldin bazuen trinket eder bat *Herriarena* deitua.

Ez zuen horrengatik ahanzten aita familiakoak zer garrantzia duen gazteentzat eskolak eta denbora guti barne bailarako herri guziak Sivom edo zindikat batean bildurik *CES Jean Pujo* deitu bigarren mailako ikastegia lur ordoki berean altxatzen zuen.



Ez dugu erraite beharrik hiri erdiko lan handi horien guzientatik ez zituela ere gutiesten Baigorriko auzapezak bazterretxe orotako behar nagusiak, hala nola bideak, ura , argia eta 220 volteko indarra.

Bizkitartean gauzak diren bezala erraiteko, 1973an, Baigorriko errekan, lehen aldikotz agertu zen *Iparretarrak* talde iraultzale berriaren ekintzek eta zalapartek bazterrak harrotu zituzten Baigorriko bereko kontseiluraino eta horrela jaun auzapezak kargua utzi behar izan zuen 1980ean, nahiz ez zen horrengatik Jean Haritschelhar kargurik ez lanik gabe gelditu, ondarearen zaintzale bezala, ez Paben. Departamenduko batzorde berezian 1982an, ez Gazteizen Euskararen Aholkularien Batzordean, ez 1985 Bordelen Akitaniako C.O.R.E.P.H.A.E.-n, ez urte berean Parisen Frantziako Eskualdeen Hizkuntza eta Kulturen kontseiluan, ez eta, oroz gainetik, EUSKALTZAINDIAN.

Jean Haritschelhar euskaltzainburu (1989-2005)

Bazuen alabaina aspaldi Euskaltzaindian zebilela Jean Haritschelhar, 1962an euskaltzain oso hautatu zutenaz geroz, 1888an Bidarraien sortu eta 1958an Hiriburun zendu zen Oxobi sinatzen zuen Jules Moulier olerkari, idazle eta hizlari paregabearen ordezkatzeko. Eta gero laster Euskaltzaindiak berak 1966an sortu zuen Euskaltzainburu-orde kargu berriaren hartzeko izendatu zuten oraino baigorriar euskaltzaina. Horra nola, aita Villasantek 1989an Euskaltzaindiaren gidaritza utziz geroz, ohituak ginen guztiak, Frantzia, Espainia ala Ameriketara, Jean Haritschelhar Euskaltzainburu izaten.

Gaur ordea *Eusko Ikaskuntzak* berak *Lekuona saria* ematen diolarik gure buruzagiar bere buruzagigoa uzten duen unean Jean Haritschelharrek Euskaltzaindian egin dituen lanen bilduma egin behar-eta, bainuke hor liburu lodi edo tesi gotor baten gaia, horra zergatik, lotsak harturik, honetan isiltzen naizen eta uzten didan hitza, begirunez eta esker onez gure jaun buruzagiar berari.

Piarres Xarritton Zabaltzagarai

Hona beraz Euskaltzaindian Bilbon 2005eko urtarrilaren 27an Jean Haritschelhar-ek kargua uztean berak eman hitzaldia:

«Lehendakari Jauna, Excelentísima Señora Ministra de Educación, Agintari agurgarriak, Euskaltzainburu jauna, Euskaltzainkideak, Jaun-Andereak arratsaldeon:

Urteak iragan dira: 42 Euskaltzaindian enetzat, haietan 38 zuzendaritzan, 22 euskaltzainburuorde eta 16 euskaltzainburu. Etorria zen karguaren uzteko ordua. Zaharrena izanez Iratzederekin, izendapenaren arabera (1962ko uztailaren 27an izendatua izan ginen) azken lau hamarkadetan Euskaltzaindian egin diren lanak nahi nituzke aipatu.

Arantzazuko biltzarra da Euskaltzaindiarentzat bihurtune nagusia, orduan erabakitzen delakotz euskara batuaren alde jokatzea. Urre ezteiak ziren eta haien ospatzeko nola ez obra, kazetari, idazle, irakasle eta euskaltzain batzuen artean bazabilan ideia nagusia: euskara batuaren beharra. Giro berri bat sortzen ari zen, bereziki Hegoaldean, ordua zen lanean hasteko eta gauzatzeko lehenbiziko euskaltzainen ametsa, hastapen bat ukan zuela 1920ean Campion, Broussain-en txostenarekin.

Zertan gaude orain?

Arantzazuko Biltzarrean argiki urratu zuen bidea Koldo Mitxelena euskaltzain zenak, erakutsiz Euskaltzaindiaren eginbidea zela gidari izatea, bide erakuslea, batasuna lortuz azaleko auzietan lehenik, hasiz ortografiarekin, segituz morfologiarekin eta azkenik joskerarekin.

Ortografiarena egina da aspaldi honetan, Morfologiari doakionez batasuna lortua da bere ñabardurekin, bai izenen deklinabidean, bai erakusleetan bai eta ere aditzean, izan ditzen aditz laguntzaileak edo aditz trinkoak, ahanzi gabe hitanozko formak, Joskeraren garaia etorriko da segitzen baitu Euskaltzaindiak normalizaziorako bidea.

Ez zuen aurre pausu hori emanen Euskaltzaindiak ez balitz sartu, denbora berean, lan sakonetan bere bost batzorde nagusiei esker. Euskara idatziaren altxorra Orotariko Euskal Hiztegian dauka, osoki bukatua baita, XVI. liburukia editoreen eskuetan dagoela duela hilabete bat baino gehiago. Horri esker hiztegi batuko lehen itzulian 23.000 hitz erabakiak izanak dira.

Bigarren altxorra ahozko euskararena Atlaseko inkestei esker (2.800 galdera 145 herritan 9 pentsatuz ere lekukoak mintzatu direla laxoki, ixtorio konda, egiazko euskalkiaren hiztegia eta gramatika sartzen direlarik solas horietan, bai eta ere ahoskera eta azentua. Hori da Dialektologia Batzordearen emaitza.

Gramatika batzordeak bost liburuki agertu ditu, seigarrena bukatua, argitalpen batzordearen eskuetan dela. Joskeran sartua da, segitzen du bere lana behar duen bezala finkatzeko egun batez euskara batuaren joskera.

Onomastikako batzordeak kaleratu ditu Euskal izendegia, gizasemeen izenena eta ponte izenena, herri eta herritarren izenena Euskal Herri guztian, ahantzi gabe euskal deituren izendegia Espainiako gobernua eta Eusko Jaurlaritzak babesturik agertua.

Literatura batzordeko kide nihaur izanez eman dezaket nire lekukotasuna. Bukatutzat ematen da Literatura kritika hiztegia, jakinik ere kide guziek parte hartzen dutela kongresuetan lan, txosten, mintzaldiak azalduz euskal literatura idazleei buruz, izan dituen Iparraldekoak hala nola Etxepare, Oihenart, Elizanburu, edo Hegoaldekoak Larra-mendi, Kardaberaz, Lizardi, Orixe eta aurten Lauaxeta.

Lan sakonak horiek guziak, lan ixilak ere eguneroko lanak euskaltzainek, urgazleek, batzordekideek (gehienak Unibertsitateko irakasleak) gogotik eskainiak, baitakite denek euskararen onerako lanean ari direla. Lan sakon, lan ixil horiek nahi ditut gaur goraiatu kargu aldaketa honetan, eskertzen ditudalarik, denbora berean, batzorde guztietan parte hartu eta hartzen duten ikerle guziak, haien artean zendu direnak gogoan ditudala.

Eguneroko lana, lan xumea bainan emankorra, Euskaltzaindiaren egoitzan eta ordezkartzetan langileek egiten dutena, jendearen galdeei erantzunez, haien zerbitzari leialak izanez, zabalduz Euskaltzaindiak hartzen dituen erabakiak bai ere agertzen dituen liburuak. Eskertzen ditut bihotzez ordezkariekin batean zabaltzen dutelakotz Euskaltzaindiaren irudi ona Euskal Herri osoan, mugaz gainetik euskaldun guztien artean lokarri bat baita Euskaltzaindia eta zaintzen duen hizkuntza gure euskara maitea.

Eta orain, zuei mintzo nitzazue agintari agurgarriok. Zuri lehenik, Lehendakari jauna: bai zuk eta bai Eusko Jaurlaritzak beti harrera ona egin diozue Euskaltzaindiari, ez diozue sekulan dirulaguntzarik ukatu, bereziki ezagutu dituen garai latzetan, bultzatu, aldiz, sar zadien orainaldian informatika eta tresneria berrien erosteko laguntza eskainiz, hala hedatzen baita mundu zabalera

Euskaltzaindiaren emaitza, Interneten egiten diren bisitak direla lekuko.

Bizkaiko Foru Aldundiari zor diogu gure egoitza eta gero Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiak bildu dira egoitza hori ederki apaintzeko. Inauguratu zen eguna egun ederra eta ezin ahantzizkoa izan zen Euskaltzaindiarentzat.

Hitzarmen batek lotzen ditu Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Autonomia Erkidegoko hiru Foru Aldundiak eta Euskaltzaindia, hitzarmen berri bat sinatuko delarik laster; nola ez dut baliatuko gaurko eguna, denak bilduak zaretelarik hemen, eskerrik beroenak eskaintzeko zuri eta hiru diputatu nagusiei orain arte erakutsi diguzuen atxikimendua-rengatik, egin duzuen diru-laguntzarengatik eta, geroari begira, egin duzuenarengatik baitakigu atzo eta egun bezala bihar ere zuekin konda dezakegula.

Ez ditut ahanzi nahi Nafarroako Gobernua ez eta ere Iparraldeko agintariak. Nafarroarekin badugu hitzarmen bat; Iparraldean hitzarmen bereziari esker, frantses Kultura Saila, Akitaniako kontseilua eta Departamenduko Kontseilu Orokorrenganik Euskaltzaindiak diru-laguntza badauka urtero. Har dezatela denek Euskaltzaindiaren izenean ene eskerrik beroenak. Madrilgo Gobernuari eta orain hemen dagoenez gero ministra andere agurgarriari doa mila esker handi bat. Excelentísima señora, le agradezco mucho su presencia en este acto y también la ayuda financiera que aporta su Ministerio. Argi eta garbi daukagu gogoan ez zuela Euskaltzaindiak egin duen lana eta emaitza eginen ez balu denen sostengu nasaia ukan.

Duela 16 urte kargu aldaketa Aita Villasante eta ene artean egin zen Bizkaiko Foru Aldundian Ardantzeta jauna orduko lehenakariaren eta Pradera diputatu nagusiaren aintzinean Mari Carmen Garmendia Lasa zela, ene ustez, bestaren asmatzailea. Orduan sortu zen ohidura berri bat, ofizialki agintari guztien aurrean eginez kargu aldaketa. Ohidurak segitzen du gaur, orain gure egoitzan, beste ohidura berri bat plazaratzen dugularik. Erakusteko euskaltzainburua dela “primus inter pares”, lehentasunaren lekuko hona euskaldun makila Andres Urrutia Badiola euskaltzainburu berriari eskaintzen diodana. Doala euskaltzainburuz euskaltzainburu hemendik aintzina, ene zorionik beroenak hartzen

dituela euskaltzainburu "primus" delakoak ni sartzen naizela berriz "pares" delakoen artean».

Eta hona azkenik Euskaltzainburu berriak, Andres Urrutia jaunak, eman ihardespena:

« ... Ohore zuri, Jean, beti gidatu duzulako tinko eta fermu, esku onez eta trebez, Euskaltzaindiaren norabidea eta ibilbidea.

Zuregandik ikasi dugu Euskaltzaindiaren izena eta izana aurrera eramaten, egoki zertzen. Zuregandik ere, egoera korapilatsu zein erosoagoetan, irtenbideak bilatzen eta euskaldunei euren euskararen harrotasuna erakusten, berez dituzun dohainak eta eskarmentuz zureganatu dituzunak eskuzabal eskaini dizkiezula gure instituzioari eta euskaltzain guztioi, ohorezko, oso nahiz urgazle izan. Zer esanik ez, etxeko behargin eta langile prestuei ere.

Lausenguak eta losintxak baino, beti maite izan dituzu lana eta ekina. Badakigu kargua uzten duzula, dakigularik euskaltzain oso moduan zure ekarriak eta jakituria aurrerantzean ere gure esku izango ditugula, halako esperientzia handiko maisuak hasiberriko urduriari dion harrera eta arreta artatsu berberarekin.

Lana behin baino gehiagotan aipatu duzue zure hitzaldi, agerpen eta plazaratze uneetan. Euskaltzaindiaren lana, bereziki. Lanerako gonbita egin zenuen 1989. urtean, Aita Villasanterengandik euskaltzainburutza eskuratu zenuenean. Orduko zure hitzak, orduko zure esanak ditut gaur nik gidari, Euskaltzaindiaren nondik norakoak eta egitekoak zehazteko.

Lanak hasiak dira, behar dira bururatu.

Hona, hitzez hitz, orduko zure esamoldea. Gaur, ostera, orduko lan hasi berriak bururatu direla, neurri batean bederen, ezin uka. Horra hor Orotariko Euskal Hiztegia, bukatua, horren azken liburukia aurki argitaratuko dela. Horra, Atlasa, amaitzeko tenorean jarrita, laster ere horren fruituak bistaratuko ditugula. Horra, Hiztegi Batuaren lehenengo itzulia, euskarari, prestutasuna ez ezik, erreferentziak ere eman dizkiona».

Bilbon, 2005/01/27


Racines (1923-1935)

Au début de ce XXI^{ème} siècle où l'Europe cherche à fixer les modèles de son unité et de ses frontières, si nous jetons un regard sur les Etats français et espagnol qui par leurs disputes et leurs querelles ont traversé et encombré notre histoire durant les quatre ou cinq derniers siècles, nous pouvons observer que les noms des hommes, appelés "douaniers", de ceux qui étaient chargés de défendre ou de traverser les "frontières naturelles" qui divisent nos provinces basques, remplissent les pages de notre histoire littéraire : les frères Duvoisin, les frères Elissamburu, Otxalde et Mendiague, Oxobi et Zerbitzari ou même notre maître Pierre Lafitte.

C'est dans ce même monde que plongent les racines de celui qui aujourd'hui reçoit le prix Manuel Lekuona accordé par Eusko Ikaskuntza à Jean Haritschelhar, professeur et président de l'Académie de la langue basque.

Un tel nom, même s'il a une consonance d'origine souletine, avec ses "haritx" "elhar" et ses trois "h", ne nous empêche pas de savoir qu'en 1885 les grands-parents de Jean Haritschelhar, Jean Baptiste Haritschelhar douanier (1860-1947) et Gracieuse Chimits institutrice (1864-1940), se marièrent à l'église d'Estérençuby, et passèrent leur vie jusqu'à leur retraite, au quartier Urdoz de Baigorri, au service de la III^{ème} République.

Leur fils Arnaud Haritschelhar, fit ses premières études avec sa mère à l'école d'Urdoz puis les poursuivit chez les frères de St Jean Baptiste de La Salle au collège St Bernard à Bayonne. Ensuite, intéressé par le métier de tailleur, il fit son apprentissage à Bordeaux puis son service militaire de deux ans à Tunis (1906-1907) et s'installa à Baigorri comme tailleur. De



1914 à 1918 il fut appelé à passer encore quatre longues années, loin des siens, au péril de sa vie.

Heureusement il revint sain et sauf et eut ainsi l'occasion de faire connaissance de Jeanne Marie Duhalde ((1891-1972) fille de Jean Duhalde (+ 1929) et Gracieuse Bidart (+ 1931) de la maison Moxoenea d'Iholdi . Ils unirent leur destinée le 15 mai 1919.

Les jeunes mariés se fixèrent bientôt à la maison "Ponthieu" Ponttoenea en basque de Baigorri et eurent deux enfants, fille et garçon : l'aînée Denise Haritschelhar naquit le 15 mai 1920 qui épousa plus tard le docteur Louis Bimboire ophtalmologiste, décédé le 08/05/1993 ; le second naquit le 13 mai 1923, Jean Haritschelhar, dont il s'agit ici.

Jean Haritschelhar-Duhalde fit ses premières études à l'école publique de Baigorri. Il obtint le certificat d'études primaires en 1935 et la même année il continua ses études, comme sa grand-mère l'avait fait auparavant, pour devenir enseignant.


Etudes (1935-1962)

Le jeune baigorriar fit son secondaire durant les années 1935 à 1945. Il fut reçu au baccalauréat en 1943 puis il entreprit une licence d'espagnol.

En 1945, après son service militaire, il entra à l'Ecole Normale Supérieure de St Cloud, et parcourut à la Sorbonne toutes les étapes des études supérieures d'Espagnol, soit licence en 1947 ; ensuite, après un séjour à Madrid et Séville, en 1949 le Diplôme d'Etudes Supérieures (D.E.S.) en présentant un mémoire sur *Los hermanos Becker, Gustavo Adolfo y Valeriano, costumbristas* ; en 1950 le Certificat d'Aptitude d'Enseignement Secondaire (C.A.P.E.S) et enfin en 1952 l'Agrégation. Ce dernier diplôme permit à Jean Haritschelhar de quitter son poste d'enseignant au lycée d'Agen pour celui d'Assistant du Professeur Noël Salomon à l'Université de Bordeaux en 1962.

Entre temps, le jeune professeur avait fait la connaissance de Colette Neveu et il l'épousa le 19 décembre 1949. Dans un premier temps, les nouveaux mariés vécurent à Boulogne sur Seine. Leur premier fils, Eñaut, naquit le 25 janvier 1952. Aujourd'hui il vit à la maison "Pontto" de Baigorri et travaille dans l'élevage et la viticulture. Avec son épouse Annie Iputcha, ils sont les parents de Joanes et Elorri.

En 1952 la famille Haritschelhar s'était installée à Agen. Elle y resta dix ans. C'est là que naquit leur second fils Xabier le 11 avril 1954. Aujourd'hui il est instituteur et vit dans le moulin Berrondotxipia à Hasparren avec Féliciana Phagaburu, institutrice à Hasparren, originaire de Pagolle. Ils ont deux enfants : Jon et Patxi.



En 1956, le 12 mai naquit leur fille Mirentxu Haritschelhar qui épousa plus tard Gérard Veillet en Corrèze et lui donna deux fils Sébastien et Nicolas. Cela fait que les grands-parents Jean Haritschelhar Colette Neveu sont entourés aujourd'hui de six petits-enfants.


En sus de sa fonction de professeur à Agen, Jean Haritschelhar entama des travaux de recherche au sein du C.N.R.S. et ainsi en 1962 il entra à l'Université de Bordeaux comme Assistant puis comme Maître assistant en 1965.

Dans ces années-là, il avait eu l'occasion de rencontrer à Bayonne, au bureau de l'hebdomadaire Herria, l'érudit Pierre Lafitte et il lui avoua que sa langue maternelle étant l'euskara, même s'il vivait éloigné du pays, si quelqu'un pouvait lui apporter un peu d'aide, il aimerait travailler sur l'euskara. A ce moment-là Pierre Lafitte lui remit une pile de livres et Jean Haritschelhar se mit à les étudier dès qu'il arriva à son domicile.

L'élève de Pierre Lafitte avoue que ces trois premiers livres furent : le premier, la méthode pour apprendre le basque *Ezkila* des frères de Belloc J.B. Harymbat et B. Pons, puis le second la Grammaire basque écrite par Pierre Lafitte en 1944 et le troisième le recueil des chants du poète maudit Pierra Topet Etxahun publié par les chercheurs Pierre Lhande et J. Larrasquet en 1946.

Cette première réunion au journal Herria de Bayonne entre les deux professeurs d'Agen et d'Ustaritz, eut une autre conséquence. Car lorsque le conservateur du musée basque de Bayonne, Jean Ithurriague mourut, certaines personnalités comme Lafitte, Labéguerie, Dassance parvinrent à faire admettre qu'il convenait de placer à la tête de cette institution un Basque bascophone et c'est ainsi que le Dr Henri Grenet, maire de Bayonne offrit ce poste, en cette même année 1962 au professeur Haritschelhar originaire de Baigorri .

Ce fut la bonne occasion pour le nouveau directeur du Musée Basque de revenir au Pays ; il s'installa avec sa famille à Anglet dans la maison Elorrieta. La même année il fut nommé



académicien basque à la place d'Oxobi. Il faut souligner que le jeune professeur d'Université Jean Haritschelhar avait fait connaissance avec le premier professeur des études basques de l'Université de Bordeaux René Lafon et Pierre Lafitte tous deux académiciens basques à Bilbao.

Avouons qu'entre 1962 et jusqu'à sa retraite en 1986, Jean Haritschelhar n'a pas manqué de besogne entre Anglet et Bordeaux, Bayonne, Bilbao et Baigorri pour mener à bien ses nombreuses responsabilités.

Professeur à l'Université de Bordeaux (1962-1986)


La particularité d'un professeur d'université est d'associer son enseignement à divers champs de recherche : pour cette raison Jean Haritschelhar s'engagea à étudier deux domaines bien spécifiques. Le 8 juillet 1969, il présenta ses thèses sur la vie et l'œuvre du fameux poète barcusien *Pierra Topet Etxahun*. Deux gros volumes traitant ces deux sujets de thèse furent publiés.

À la suite de la thèse Jean Haritschelhar occupa la chaire de langue et littérature basques laissée par René Lafon, emploi qu'il remplit jusqu'à sa retraite en 1986 à la satisfaction de tous ses étudiants.

Avec le titre de Professeur de langue et littérature basques dans quelles directions orienta-t-il son enseignement ?

